

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

Bizkaiko Foru Aldundiaren 146/2018 FORU DEKRETUA, azaroaren 20(e)koa, 2019ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» ikus-artearen erakusketa ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituena.

Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremani buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legeak, bere 7. artikuluan, lurralde historikoei eskumen eskusiboa ematen die, besteak beste, arlo hauetan: «lurralde historikoaren titulartasunekoak diren eta Arte Ederrekin eta Artisautzarekin zerikusia duten artxibo, biblioteka, museo eta erakundeen arloan».

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuak, zeinak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kultura Sailaren egitura organikoari buruzko erregelamendua onesten duen, sail horri eskumen hau esleitzen dio: Bizkaian kultura sustatu eta zabaltzea, gure kulturaren ezagutza eta garapenetik abiatuta eta beste kultura guztiei ateak zabalduz.

Horregatik guztiagatik, eta eskumen-titulu horiek direla bide, dekretu honen helburua kultura sustatzea da; horretarako, sari batzuk emango dira eta ikusizko artearen erakusketa ibiltari bat egingo da.

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 4. xedapen gehigarriak ezarritakoarekin bat etorriz, «Hezkuntza, kultura, zientzia edo beste edozein motatako sarien esleipenari ezar dakioken araubide berezia ezarriko zaio, foru arau honen edukia araberakoa izan beharko dena, salbu eta, diru-laguntzen izaera berezia dela eta, horrelakorik ezin ezar dakikeen alderdietan».

Foru dekretu honek bete egiten ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusten diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuaren 3. artikuluan jasotzen diren (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da).

Foru dekretu horretan xedatutakoa kontuan hartuta, txosten hauek eman dira foru dekretu hau egin denean:

1. Proiektua sustatu duen sailaren txosten juridikoa.
2. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
3. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.
4. Legezketasunari buruzko txostena.

Bizkaiko Kondaira Lurraldeko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Erregimen eta Funtzionamenduari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru diputatuaren eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaien buruzko foru dekretuen proiektuak onar ditzan. Bestalde, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari diru-laguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko. Eta Diru-laguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluari dagokiola onartzea, egintza bakarrean.

Hori dela bide, Euskara eta Kultura Saileko foru-diputatuaren ekimenez, eta aurrez Bizkaiko Foru Aldundiak 2018ko azaroaren 20ko bileran aztertutik, honako hau



XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea

Foru dekretu honen bidez, 2019ko ekitaldirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira; honen ondoren doa foru dekretuaren testua.

I. TITULUA

XEDAPEN OROKORRAK**1. oinarria.— Deialdiaren xedea**

1. Deialdi honen helburua da 2019ko deialdirako «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako obrak aukeratzea eta sariak ematea; honako modalitate hauek sartzen dira deialdian: pintura, eskultura, grabatua, argazkigintza eta DVD-bideoa.

2. Erakusketa horren bitartez gehienez ere 18 artelan erakutsiko dira, aurreko modalitate horietako guztiak batuta, Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat udalerritan.

3. Foru dekretu honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira honako hauek:

- a) Instalazio bat osatzen duten artelanak.
- b) 2018ko urtarrilaren 1a baino lehen sortutako artelanak.
- c) Espainian edo nazioartean beste erakunde pribatu edo publiko batzuek antolatutako lehiaketa edo sari batzuetan saritutakoak.
- d) Argazkigintza modalitatean ez dira onartuko euskarri zurrunean ez aurkezten ez diren eta edozein material gardenekin (plastikoa izan ezik) babestuta ez daukaten lanak.
- e) Sexua dela-eta diskriminazioren bat adierazten duten lanak.

4. Parte hartzaileek askatasun osoa izango dute gai eta ikus-kontzeptuei dago kienez. Hala ere, erakusketa ibiltaria izanik, epaimahaiak obra batzuk baztertu ditzake; hauskorak izan daitezkeen artelanak edo, euren izaeragatik, udalerriz udalerriz eramateko arazoak sor ditzaketenak.

2. oinarria.— Onuradunak

1. Honako hauek eskatu ahalko dute euren obrak erakusketa honen barruan sartzeko: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan jasotako egoeretako batean egon ez, eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak:

- a) 2018ko urtarrilaren 1etik eskaria aurkeztu arte, Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan etenik gabe erroldatuta egotea, edo, bestela, 2018/2019 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean matrikulaturik egotea, dela 1.1 oinarrian aipatutako ikus-arte modalitateetako edozeinetan, dela fakultate horretan eskaintzen diren ikas-mailetan (masterrak, graduondokoak, doktoregoak).
- b) Adina: 1984. urtean edo urte horren ondoren jaio izana.

2. Ez dira onartuko taldeek edo kolektiboek sortutako obrak, talde edo kolektibo horiek pertsona bakar batek ordezkatzeko dituen izan ezik. Kasu horretan, ordezkariak eta talde edo kolektiboko pertsonak goiko baldintza horiek bete behar dituzte.

3. Foru dekretu honen bidez araututako deialditik kanpo geratuko dira pertsona hauek:

- a) Aurre-aurreko hiru edizioetako deialdietan erakusketaren lehen sari berezia lortu dutenak.
- b) Berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik administrazio-bidean, lan-arloan edo zigor-arloan zehapen irmoa izan duten pertsonak, eta honako arau hauetan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituztenak ere: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea-



ren III. tituluan, Emakumeen eta Gizonen berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan.

II. TITULUA**ARAUBIDE JURIDIKOA****3. oinarria.— Aplikatu beharreko araudia**

Foru dekretu honetan jasota ez dagoenerako, honako hauek ezarriko dira: Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Diru-laguntzen Erregelamendua, eta, haien guztien osagarri moduan, Administrazioen Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 2015eko urriaren 1eko 40/2015 Legea eta beste edozein arau xedapen, duen izaeragatik ezartzeko modukoa baldin bada.

4. oinarria.— Arau-hausteak eta zehapenak

Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan xedatutakoa ezarriko da, bai eta arau hori garatzen duen erregelamenduaren IV. tituluan xedatutakoa ere.

III. TITULUA**PROZEDURA****5. oinarria.— Eskabideak aurkezteko lekua eta epea**

1. Eskabideak bi modu hauetako batean aurkeztu ahal izango dira:
 - a) Dokumentazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>) eta artelana Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49 - 33. modulua).
 - b) Bai dokumentazioa bai obra Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea 49 - 33. modulua). Eskabideak I-ER2 inprimaki gisa erantsita dagoen eredu ofizialean aurkeztu behar dira; <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak> helbidean eskuratu daiteke eredu.
2. Hona eskabideak aurkezteko epea:
 - a) Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez aurkezten diren eskabideak:
 - 1.a) Dokumentazioa: 2019ko urtarrilaren 30etik otsailaren 7ra (biak barne).
 - 2.a) Artelana: 2019ko otsailaren 6 eta 7an, 10:00etatik 13:30era, Basauriko Elkartegian (Cervantes etorbidea, 49 - 33. modulua).
 - b) Basauriko Elkartegian bertan (Cervantes etorbidea, 49 - 33. modulua) aurkezten diren eskabideak, bai dokumentazioa bai obra, 2019ko otsailaren 6an eta 7an, 10:00etatik 13:30era.
3. Parte hartzaile bakoitzak gehienez bi artelan aurkez ditzake ikus-arteen modalitatetarik edozeinetan. Lanak markoa edo listoia behar bezala jarrita aurkeztu beharko dira, jendeak ikusteko horman jartzea behar ez duten obrak izan ezik.
4. Adingabeen eskabideak haien guraso-ahala edo legezko ordezkariak duten pertsonak egingo dituzte. Ondorio guztietarako, azken horiek izango dira —eta ez adingabeak— jasotako kopuru ekonomikoaren onuradunak. Edonola ere, adingabeak buruzkoa izango da hurrengo oinarriaren 2. zenbakiko a) letran adierazitako dokumentazioa.
5. Adingabeak sariaren onuradun izango dira baldin eta adin-nagusitasuna lortzen badute sariaren ordainketa egin aurretik. Hala gertatzen denean ordainketa izapidetze-



ko, Bizkaiko Lurralde Historikoko ezein udalerritan errolatua ez badaude, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ordainduta dauzkatela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte; ziurtagiriok beren izenean emanak izan behar dute.

6. oinarria. — Eskabidearekin batera erantsi behar diren agiriak

1. Diru-laguntzetarako aurrez aurreko eskabideak foru dekretu honen I. inprimaki legez (ER2 eredu) eta II, inprimaki legez (ER3 eredu) erantsitako eredu ofizialak erabiliz aurkeztu behar dira; biak adingabeari buruzkoa izango dira, eta web-orri honetan eskura daitezke: <http://www.bizkaia.eus/kulturadirulaguntzak>.

Bizkaiko Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoaren bidez (<https://www.ebizkaia.eus/eu/hasiera>) aurkeztuz gero, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 66.6 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritako betetzeko eta egoitzan aurkezteko dauden eredu berezien arabera eskabideak erabili beharko dira.

2. Kasu bietan, eskabideekin batera dokumentazio orokorra eta hurrengo ataletan eskatutako dokumentazio berezia aurkeztu beharko da, eskatzaileak berak edo eskatzailearen ordezkariak sinatuta:

- a) 2018ko urtarrilaren 1etik Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerritan etenik gabe errolatuta daudela egiaztatzen duen ziurtagiria, edo, bestela, 2018/2019 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean matrikulaturik daudela egiaztatzen duen ziurtagiria, dagokion kasuaren arabera.
- b) Zerga-egoitza duten lurraldean, Gizarte Segurantzako betebeharrak eta zerga-betebeharrak beteta dauzkatela egiaztatzeko egiria, baldin eta eskatzaileak, EHUko Arte Ederren Fakultateko ikasleak Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo errolatuta badaude.
- c) Aurkeztutako artelanen argazki bana.
- d) Datu zehatzak, behar bezala beteta (Labur adierazi: «izenburua, teknika, neurriak, balorazioa»).
- e) Talde edo kolektibo bat ordezkatzuz diharduten pertsonen kasuan, dagokion dokumentazioa bete beharko da.
- f) Banku-helbideratzearen fitxa, behar bezala bete, baldin eta aurretik aurkeztu ez bada edo aldaketaren bat badago banku-datuetan.

4. Edozein kasutan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak kontsultatu eta egiaztatu egingo ditu eskatzailearen identitateari buruzko datuak, eta, era berean, ordezkaturako adingabearenak (espresuki kontrako adierazpena egin ezean).

Datu horiek eskuratzeko modua bat etorriko da Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduan (EB) eta erregelamendu hori garatzen duen araudian ezarritakoarekin bat.

Horrez gainera, eskabidea sinatuta baimena ematen zaio Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako, betiere eskatzailea Bizkaiko Lurralde Historikoan errolatuta badago.

7. oinarria. — Eskabideak zuzentzea eta hobetzea

1. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo eskabidearekin batera foru dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat aurkeztu ez bada, errekerimendua egingo zaio eskatzaileari, hamar (10) egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzendu edo beharrezko agiriak aurkez ditzan. Era berean, ohartaraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.



2. Edonola ere, Euskara eta Kulturako Foru Sailak aurkezten diren eskabideak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio osagarri guztia eskatu ahal izango du.

8. oinarria. — Diru-laguntzak emateko araubidea

Norgehiagoka sistemaren bidez erabakiko da zer artelan aukeratu «Ertibil-Bizkaia» Ikus-arteen Erakusketa Ibiltarirako eta nori eman saria, hau da, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da, aurkeztutako eskabideak alderatuko dituena. Horien artean lehentasun-ordena ezarriko da foru dekretu horietako 9. oinarrian ezarritako balorazio-irizpideak kontuan hartuta. Ondoren, epaimahaiak hiru sari berezien adjudikazioa eta erakusketa osatuko duten 15 artelanak proposatuko ditu, kontuan hartuta dagokion aurrekontuko partidan izendatutako diru-kopurua muga dela.

9. oinarria. — Eskabideak baloratzeko irizpideak

1. Ebazpen-proposamena honako irizpide hauen arabera egingo da:
 - a) Obraren sortze-kalitatea, 10 punturaino.
 - b) Kontzeptua eta berrikuntza: 10 punturaino.
 - c) Gauzatze formala: 10 punturaino.

Parte hartzen duen artista bakoitzeko artelan bakarra aukeratu daiteke; gehienez ere hamabost (15) artelan aukeratuko dira, bakoitza artista batena. Horiez gainera, gehienez ere beste hiru (3) artelan aukeratuko dira, modu berezian. Lanok, sorkuntzari dagokionez, ezaugarri berritzaileenak izango dituzte. Lortutako puntuen arabera, artelanen hurrenkera ezarriko da.

Hala hiru sari bereziak nola aukeratzekoak diren 15 obrak hutsik edo aukeratu gabe gera daitezke, baldin eta, epaimahaiaren ustez, ez bada lortzen nahikoa kalitate artistikoa.

2. Aukeratutako obren egileetarik bakoitzak (15 gehienez) bi mila (2.000) euroko sari bat jasoko du, arte-sormenari eta ikusizko arteen arloan egileon lanaren sustapenari laguntzeko.

Era berean, aukeraturiko obra berezien egileetarik bakoitzak (3 gehienez) sari bana jasoko du, lorturiko puntuazioaren arabera zenbateko bat izango duena: zazpi mila (7.000) euro punturik gehien eskuratzen duenari; bost mila (5.000) euro bigarren puntuaziorik handiena eskuratzen duenari, eta lau mila (4.000) euro puntuazioaren arabera hirugarren geratzen denari.

3. Aukeratutako lan berezien egileek aukera izango dute «nazioarteko egonaldi artistiko bat» egiteko Japonian, 2019ko uztailean eta abuztuan. Aldundiak gastu hauek ordainduko ditu egonaldian: egoitza bateko ostalua (mantenurik gabe) eta joan zein itzultzeko bidaiak. Saritutakoek ordaindu beharko dituzte materiala eta egonaldiaren gastuak.

4. Indarrean dagoen zerga-araudiaren arabera dagozkien PFEZen atxikipenak aplikatuko zaizkie ematen diren diruzko sariei.

10. oinarria. — Aholkularitza

Euskara eta Kultura Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak behar den laguntza teknikoa edo aholkularitza eskainiko ditu foru dekretu hau dela-eta sortutako zalantza edo kontsulta guztiak argitzeko, (horretarako, <http://www.bizkaia.eus/laguntzaileKulturEkintza> helbidea erabil daiteke).

11. oinarria. — Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahai kalifikatzaile bat osatuko da aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko. Epaimahaiakideak Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen horiek egiteko, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Aginduaren 44 artikuluan ezarritakoa beteko da.



2. Aukeraketa egiteko gorago ezarritako irizpideak kontuan hartuta, epaimahai kalifikatzaileak ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Euskara eta Kulturako foru diputatuari, hark behin betiko ebazpena eman dezan.

12. oinarria.— Ebazpena

1. Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 22.4. artikuluan xedatutakoa betez, interesdunek, deialdi honetan, ez dute entzunaldiaren izapiderik izango behin-behineko ebazpen-proposamenaren ondoren, zeren prozeduran ez baitira jaso eta kontuan hartuko interesdunek ekarri dituzten egitateak, alegazioak eta frogak baino.

2. Deialdia ebatzi baino lehen, Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztatuko du eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela. Aurreko guztia egiaztatu ondoren ikusten bada eskatzailearen batek betebeharrak horietako edozein ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela.

3. Eskabideei buruzko ebazpena emateko eta jakinarazteko epea bi (2) hilabetekoa izango da gehienez, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik zenbatuta. Euskara eta Kulturako foru diputatuak emango du ebazpena, epaimahai kalifikatzailearen proposamena kontuan hartuta. Epe hori eskabideari buruzko ebazpen espresurik eman eta jakinarazi gabe igarotzen bada, eskabidea ezetsizat joko da; hala ere, geroago ebazpen espresua eman ahal izango da.

4. Deialdi hau ebazteko ematen den foru-agindua deialdi publiko honetarako eskabidea aurkeztu duten interesdunei jakinaraziko zaie; horretarako, iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Posta ziurtatu bidez ere jakinaraziko zaie interesdunei. Posta ziurtatu bidez ere jakinaraziko zaie interesdunei, edo egoitzan agertzeko sistemaren bidez, berriz, eskabidea egoitzan aurkeztu dutenei.

Foru-agindu horretan berariaz jasoko da ebazpenak administrazio-bidea agortzen duela eta interesdunak aukerako berraztertze errekurtsoa jar dezakeela foru agindu horren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatuaren aurrean, hilabeteko (1) epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian, bi (2) hilabeteko epearen barruan; epeok jakinarazpena egin eta biharamunean hasiko dira zenbatzen.

13. oinarria.— Beste sari batzuekiko bateragarritasuna

Sari hauek bateragarriak izango dira beste administrazio batzuek, erakunde publikoek nahiz pribatuek, estatukoek nahiz nazioartekoek, lan berbererako ematen dituztenekin.

IV. TITULUA

DIRU-LAGUNTZAK KUDEATZEA ETA JUSTIFIKATZEA

14. oinarria.— Saria ordaintzea

1. Saria emateko agindua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamar egun baliodunetan onuradunak ez badio beren-beregi eta idatziz uko egiten, saria onartu duela ulertuko da.

Saria emateari buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren 10 egun igaro eta berehala, Aldundiko Kultur Ekintzako Zerbitzuak sariari dagokion zenbatekoaren ordainketa izapidetuko du Ogasun eta Finantzen Foru Sailean, eta erakunde onuradunei ez zaie horretarako inolako bermerik eskatuko.

2. Saria ordaindu baino lehen, egiaztatuko da onuradunek euren zerga-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak eguneraturik dituztela.



Hori egiaztatu ondoren ikusten bada saridunetarikoa batek betebeharrak horietako, edozein, ez duela betetzen, errekerimendua egingo zaio 10 eguneko epean egoera hori erregulariza dezan, eta ohartaraziko zaio, horrela egiten ez bada, saria galduko duela.

15. oinarria. — Diru-laguntza onuradunaren borondatez itzultzea

1. Martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan xedatutakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena), onuradunak bere ekimenez itzuli ahal izango du Bizkaiko Foru Aldundiak emandako saria, foru erakundeak eskatu gabe.

Halakoetan, saria benetan itzultzen den arte sortutako berandutze-interesak kalkulatuko ditu Bizkaiko Foru Aldundiak, aipatutako 76. artikuluan eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

2. Saria onuradunak berak eskatuta itzultzeko, ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako Zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutze-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den sariari erreferentzia eginda.

3. Sariaren onuradunak finantza-erakunde batean ordainketa egin ondoren, ordainketaren kopia edo diru-sarreraren frogagiria bidali beharko dio sariaren kudeaketaz arduratzen den Euskara eta Kultura Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuari.

16. oinarria. — Betebeharrak

1. Honako erakusketa honetan parte hartzeak araudi hau oso-osorik onartzea, epaimahaiaren ebazpenarekin bat etortzea eta edozein motatako erreklamaziori uko egitea dakar, legez balioztatuak direnean salbu.

Arautegi hau ez betetzea edo erakusketaren garapenari oztopoak jartzea sariduna bazter uzteko arrazoiak izango dira, baita Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan aurreikusita dagoen itzulketen eta zehapenen araubidea ezartzeko ere.

2. Egileek berek edo haiek berariaz baimendutako pertsona batek aurkeztuko dituzte artelanak, eta bilgarria kenduko diete artelanei.

3. Aurkeztu ziren lekuan hartuko dira artelanak (Basauriko Elkartegia, Cervantes etorbidea 49 - 33. modulua), ordutegi honen arabera:

- a) Aukeratu ez diren artelanak 2019ko apirilaren 11an eta 12an jaso beharko dira, artelanak emateko ezarritako ordutegi berea; horretarako, artelanak aurkeztean emandako hartu-agiria aurkeztu beharko da.
- b) Erakusketen egitaraua amaitu ondoren, aukeratutako artelanak, 2020ko otsailaren 4an eta 5ean, artelanak emateko ordutegi berean, sari bereziak jaso dituzten lanak izan ezik, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetan geratuko baitira.

4. Aukeratu gabeko obrak eta saririk jaso ez baina aukeratu direnak kasu bakoitzerako adierazitako epean erretiratzen ez badira, egileek lanak berreskuratzeko eskubideari uko egiten diotela ulertuko da; beraz, Bizkaiko Foru Aldundia obren gaineko erantzukizun guztietatik at geratuko da, eta nahi duen moduan erabili ahal izango ditu.

17. oinarria. — Saridunen beste betebeharrak batzuk

1. Era berean, aukeratutako lanen egileek (gehienez ere 18 izan daitezke) betebeharrak hauek izango dituzte:

- a) Euskara eta Kulturako Foru Sailari laguntzea, hala eskatzen bazaie, eta erakundearen gaineko edozein informazio ematea (azterlanak, inkestak, datu estatistikoak, etab.).
- b) Euskara eta Kulturako Foru Sailak, Ogasun eta Finantzen Foru Sailak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduerak onartzea.



- c) Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3. artikuluan aurreikusitako printzipio orokorrak betetzea, bereziki hizkuntza ez sexista erabiltzera hizkera mota guztietan (dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan...), edozein euskarritan, idatzizkoetan zein digitaletan.
- d) Bizkaiko Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsi den Diru-laguntzen Erregelamenduaren 54. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako gainerakoak.

18. oinarria. — Itzultzea

Saridun gertatu edo aukeratua izatearen ondorioz jasotako diru-kopurua eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta ez badira betetzen aurreko oinarrietan, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo foru arau hori garatzen duen Erregelamenduan jasotako betebeharretariko bat edo batzuk. Besteak beste, honelakorik gertatzen bada:

1. Saria lortzean edo lana erakusketarako aukeratzean berriazko baldintzak ez betetzea.
2. Ezarritako kontrol-jarduerak egiteari uko egitea edo eragozpenak jartzea.
3. Foru dekretu honetan xedatutako gainerako baldintzak ez betetzea.

19. oinarria. — Aurrekontuko partida

1. Aipatu diren sariak emateko aurrekontuetan jarritako muga BERROGEITA SEI MILA (46.000) euro izango da, eta 2019. urterako aurrekontuko partida honetatik ordainduko da: 0405, 334104, 46200 partida, 2007/0214 proiektua.

2. Hau da aukeratutako lan berezien egileentzako nazioarteko egonaldi artistikoa-ren gastuak ordaintzeko aurrekontuko muga: HOGEITA HAMAR MILA (30.000) EURO. Kopuru hori 2019. urteko urterako aurrekontuko partida honetatik ordainduko da: 0405 G/334104/23999 partida, 2007/0214 proiektua.

3. Aurrekontuei buruzko 2006ko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bateginaren (2013ko abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen bidez onetsi zen) 56. 3 artikuluan ezarritakoaren arabera, foru dekretu honen babesean emaniko diru-laguntzak baliodun izateko baldintza bat bete beharko da: dagokion ekitaldian foru dekretutik eratorritako betebeharrak finantzatzeko kreditu egokia eta nahikoa izatea. Halakorik ez bada, balio gabe geratuko dira diru-laguntza horiek.

4. Deialdiko eskaera guztiak ebatzi ondoren, guztira diru-laguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastu-baimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan.

20. oinarria. — Egile-eskubideak

1. Aukeratutako hiru (3) artelan berezi horien egileek, beren borondatez eta doan, Bizkaiko Foru Aldundiari lagako diote artelanak ustiatzeko eskubidea, artelanok Foru Aldundiaren ondarearen barruan sartzeko, egileek jasotako sariaren truke. Kanpo geratuko dira Jabetza Intelektualari buruzko Legean Europar Batasun osorako uko egin ezindakotzat edo besterenezintzat jotako eskubide moralak. Ustiatzeko eskubidea Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bateratuaren 26. artikuluan ezarritako gehieneko operako izango da.

2. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiak Ertibil Erakusketa Ibiltariaren deialdi ezberdinetan saritu eta/edo aukeratutako obrak bilduko dituzten liburuak edo katalogoak argitaratzea (berrargitaratzea barne) erabaki dezakeela aurrez ikusita, egileek Bizkaiko Foru Aldundiari horretarako baimena emateko konpromisoa hartzen dute.

3. Erakusketa ibiltarian, artelanak egilearen izenaz erakutsiko dira. Artelana ezingo da aldatu, eta obra bere osotasunean errespetatuko dela bermatu behar da.



AZKEN XEDAPENAK

Azken Xedapenetako Lehenengoa. — *Ahalmena ematea*

Ahalmena ematen zaio Kultura Saileko foru diputatuari foru dekretu hau garatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Azken Xedapenetako Bigarrena. — *Indarrean jartzea*


Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon emana, 2018ko azaroaren 20an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,
LOREA BILBAO IBARRA

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ



Kultur Ekintzako Zerbitzua Servicio de Acción Cultural ERTIBIL BIZKAIA 2019	I. Inprimakia / Formulario I Eskabidea Solicitud BFaren 146 / 2018 FD DF de DFB 146 / 2018	ER2	 Foru aldundia diputación foral
		Data / Fecha	
		Erregistro zk. / Nº de registro	

ESKATZAILEAREN DATUAK ¹ / DATOS DE LA SOLICITANTE ¹					
IFZ / NIF		Abizenak eta izena edo sozietatearen izena / Apellidos y nombre o razón social ²			
Sexua / Sexo ³ <input type="checkbox"/> Gizona / Hombre <input type="checkbox"/> Emakumea / Mujer		Helbidea (kalea, plaza...) / Domicilio (calle, plaza, etc.)			
Etxe zk. / Nº casa	Eskailera / Escalera	Solairua / Piso	Atea / Puerta	Udalerría / Municipio	P. K. / C. P.
Lurraldea / Territorio ⁴			Telefonoa / Teléfono	Mugikorra / Móvil	Faxa / Fax
Posta elektronikoa / Correo electrónico				Web orria / Página web	

ORDEZKARIAREN DATUAK ⁵ / DATOS DE LA PERSONA REPRESENTANTE ⁵			
IFZ / NIF		Abizenak eta izena / Apellidos y nombre	
Eskatzailearekin harremana / Relación con la Solicitante			
Telefonoa / Teléfono	Mugikorra / Móvil	Faxa / Fax	Posta elektronikoa / Correo electrónico

BANKU HELBIDERAKETAREN DATUAK / DATOS DE DOMICILIACIÓN BANCARIA					
Kontu korrontearen jabearen izen-deiturak / Nombre y apellidos de la persona titular de la cuenta					
BIC	IBAN	Erakundea / Entidad	Sukurtsalaren zk. / Sucursal nº	KD / DC	Kontuaren zk. / Nº de cuenta

¹ Eskatzailearen datuak: Eskabidea aurkezten duen pertsona ez bada proiektua egin behar duena, haren datuak adierazi behar dira "Ordezkariaren datuak" atalean.

² Datos de la solicitante: En caso de que la persona que presenta la solicitud no coincida con la persona que desarrolla el proyecto, debe rellenar sus datos en "Datos de la persona representante".

² Izen-abizenak, pertsona fisiko bat bada, edo, izen soziala, erakunde bat bada.

² Nombre y apellidos en caso de que se trate de una persona física, o Razón Social en caso de una entidad.

³ Dagokion laukitoxa markatu baldin eta pertsona fisiko bat bada (estatistikak egiteko eskatzen da).

³ Marcar la cuadrícula correspondiente en caso de que se trate de una persona física (se solicita para fines estadísticos)

⁴ Lurralde Historikoa (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba) edo probintzia / autonomia-erkidegoa / estatua; kasuan-kasuan dagokiona.

⁴ Territorio Histórico (Bizkaia, Gipuzkoa, Araba-Alava) o provincia / comunidad autónoma / estado, en su caso.

⁵ Ordezkaría dagonean soilik bete behar da atal hau, eta adierazi behar da eskatzailearekin zein harreman daukan.

⁵ Solo debe rellenar este apartado si existe dicha figura, indicando su relación con la Solicitante.



Empty rectangular box for stamp or signature.

DIRU-LAGUNTZA ONARTZEKO SINADURA ETA BALDINTZAK / FIRMA Y CONDICIONES DE ACEPTACIÓN

<p>Eskabide hau sinatuta baimena ematen zaio Euskara eta Kulturako Foru Sailari Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren ziertagiriak eskatzeko, Diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 21.3 artikuluan ezarritako ondorioetarako. Horretarako, onuradunak Bizkaiko Lurralde Historikoan egon behar du erroldatuta.</p>	<p><i>La firma de la presente solicitud conllevará la autorización al Departamento Foral de Euskera y Cultura de la Diputación Foral de Bizkaia para recabar los certificados de Hacienda y Seguridad Social a los efectos previstos en el artículo 21.3 de la Norma Foral 5/2005 de 31 de mayo, General de Subvenciones, siempre y cuando se encuentre empadronado en el Territorio Histórico de Bizkaia.</i></p>
<p><input type="checkbox"/> Eskatzaileak adierazten du ez dagoela onuraduna izateko ezein debekutan sartuta. Debeku horiek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluko 2. eta 3. puntuetan daude zehaztuta.</p>	<p><input type="checkbox"/> <i>La solicitante declara no estar incurso en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.</i></p>
<p><input type="checkbox"/> <i>Eskatzaileak adierazi du ez duela zehapen irmorik izan administrazio-bidean, edo lan-arloan edo zigor-arloan, berdintasunerako eskubidea eta sexu-diskriminaziorik eza urratzeagatik, eta betetzen dituela ondoretarako aplikatzekoa den arautegian berdintasunari buruz ezarritako betebeharrak.</i></p>	<p><input type="checkbox"/> <i>La solicitante declara que no ha sido sancionada en firme en vía administrativa, laboral o penal por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo, así como que cumple con las obligaciones establecidas en materia de igualdad en la normativa aplicable al efecto.</i></p>
<p><input type="checkbox"/> Honako hau adierazten dut: aurkeztu ditudan obrak ez dira beste inongo lehiaketatan saritu, eta obra horiek 2018ko urtarrilaren 1az gero eginak dira. Halaber adierazten dut honako honen berri dakidala eta onartzen dudala: goian adierazitako baldintza betetzen ez badut, nik aurkeztu ditudan obrak erakusketatik kenduko dituzte, eta obrak aukeratu ondoren frogatzen bada ez dutela baldintza hori betetzen, horiengatik jasotako diru-laguntza itzuli beharko dut, eta nire obra erakusketatik kentzea erabakiko da.</p>	<p><input type="checkbox"/> <i>Hago constar que, conforme a lo exigido en las bases, la/s obra/s presentada/s no ha/n sido premiada/s en certamen anterior alguno, así como que ésta/s ha/n sido realizada/s con posterioridad al 1 de enero de 2018. Asimismo declaro conocer y asumir que según lo dispuesto, el incumplimiento de este requisito determinará la retirada de la(s) obra(s) por mí presentadas y que en el caso de que ésta(s) hubiera(n) sido seleccionada(s) y a posteriori se demostrara que no se ha(n) ajustado a esta exigencia, procederá la devolución del importe de la ayuda percibida, acordándose igualmente la retirada de la obra de la Exposición.</i></p>
<p>Goiago aipatu eta behean sinatzen duenak</p> <p>Honako hau azaltzen du: Eskabide honen II. Eranskinean zerrendan aipatzen diren lanen egile eta jabea da. Lan horiekrenko Foru Dekretu bidez argitaratutako "Ertibil-Bizkaia 2019" izeneko ikus-artearen erakusketan aurkezteko dira.</p> <p>Honako hau eskatzen du: Onar ditzazula obra horiek eta eskatutako dokumentazio osoa erakusketan horretan parte hartu ahal izateko. Aurkezten denak deialdiari doazkion oinarriak eta epaimahaiaren ondorengo erabakia bete-betean onartzen ditu.</p>	<p><i>La persona anteriormente mencionada y abajo firmante</i></p> <p><i>Expone</i> <i>Que es autor y propietario de las obras de arte que se relacionan en el formulario II de la presente solicitud, para concurrir a la Muestra de Artes Visuales "Ertibil-Bizkaia 2019", publicada mediante DF de de</i></p> <p><i>Solicita</i> <i>Sean éstas, así como la totalidad de la documentación requerida, incluidas para participar en la citada Muestra, aceptando sin reservas las Bases de la convocatoria y la ulterior decisión del Tribunal.</i></p>

Bilbo, 2019koren a

Bilbao, a de de 2019

Sinadura / Firma



Kultur Ekintzako Zerbitzua Servicio de Acción Cultural ERTIBIL BIZKAIA 2019	II. Inprimakia / Formulario II Eskabidea Solicitud BFaren 146 / 2018 FD DF de DFB 146 / 2018	ER3
		Data / Fecha
		Erregistro zk. / Nº de registro



ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO OROKORRA ¹ / DOCUMENTACIÓN GENERAL ADJUNTADA ¹
 (Dekretuko 6. oinarrian / Base 6 del decreto)

	Non aurkeztun zen / Donde se presentó ¹	Data / Fecha ¹
<input type="checkbox"/> Diru-laguntzaren eskabidea sinatzen duenaren NANaren fotokopia <i>Fotocopia del DNI del firmante de la solicitud de subvención</i>		
<input type="checkbox"/> Estatutuen fotokopia edo eratze-ekriturak <i>Fotocopia de los estatutos o escrituras de constitución</i>		
<input type="checkbox"/> Pertsona/entitate eskatzailearen IFZren fotokopia ² <i>Fotocopia del NIF de la persona/entidad solicitante ²</i>		
<input type="checkbox"/> Dagokion erregistroan inskribatuta egotearen ziurtagiria <i>Certificado de estar inscrito en el Registro correspondiente</i>		
<input type="checkbox"/> Banku helbideraketaren fitxa ³ <i>Ficha de domiciliación bancaria ³</i>		
<input type="checkbox"/> Ahalordearen ziurtagiria ⁴ <i>Acreditación de la representación ⁴</i>		

¹ Markatu eskabidearekin aurkeztun diren agiri orokorreko dagozkien laukitxoak.

Hori guztia, dokumentazioa ez bada aurretiaz aurkeztu foru-aldundi honetako zerbitzu honetan, eta ez bada aldaketarik egon azken hiru urteetan.

¹ Marcar las casillas de los documentos de índole general que se adjuntan al formulario de solicitud.

Todo ello salvo que dicha documentación hubiera sido aportada con anterioridad en este Servicio de esta Institución Foral y no hubiera sufrido modificación durante los tres últimos años.

² Erakunde eskatzailearen Identifikazio Fiskaleko Kodearen kopia, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak emandakoa

² Copia de la tarjeta del Código de Identificación Fiscal de la entidad solicitante emitida por el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia

³ Aurreko deialdietan aurkeztu den ez beste banku-kontu bat eman bada, IV. inprimakia-E5 aurkeztu.

³ En caso de haber facilitado una cuenta bancaria diferente a las de convocatorias anteriores, presentar el formulario IV-E5.

⁴ Ordezkarria dagoenean, bakarrik. Kolektibo baten kasuan, eskabide honen II.-ER4 inprimakia bete beharko da.

⁴ Solamente cuando exista representante. En caso de tratarse de un colectivo se rellenará el formulario III-ER4 de la presente solicitud.

ERANTSITAKO DOKUMENTAZIO ESPEZIFIKOA / DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA ADJUNTADA
 (Dekretuaren 6. oinarrian / Base 6 del decreto)

<input type="checkbox"/> 2018ko urtarillaren 1etik etenik gabe Bizkaiko Lurralde Historikoan erroldatuta egotearen ziurtagiria ¹ <i>Certificado de empadronamiento en el Territorio Histórico de Bizkaia de forma ininterrumpida desde el 1 de enero de 2018 ¹</i>
<input type="checkbox"/> Euskal Herriko Unibertsitateak 2018/19 ikasturtean emandako ziurtagiria, interesaduna Arte Ederren Fakultatean matrikulatuta dagoela egiaztatzen duena ² <i>Certificación expedida por la Facultad de Bellas Artes de la Universidad del País Vasco acreditativa de que la persona interesada se encuentra matriculada en la citada Facultad de Bellas Artes en el curso 2018/19 ²</i>
<input type="checkbox"/> Zerga egoitza duten lurraldean, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta dituztela egiaztatzeko agiriak ² <i>Certificados acreditativos de estar al día en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y para con la Seguridad Social allí donde tengan su residencia fiscal, siempre que no sea el Territorio Histórico de Bizkaia ²</i>
<input type="checkbox"/> Aurkeztutako obren argazki bana <i>Fotografía de cada obra presentada</i>

¹ Bizkaiko Lurralde Historikoko edozein udalerrian erroldatuta dauden pertsonentzat. Kolektibo baten kasuan, pertsona guztien errolda-agiriak aurkeztu behar dira.

¹ Para las personas que se encuentren empadronadas en cualquiera de los municipios del Territorio Histórico de Bizkaia. En caso de tratarse de un colectivo, se adjuntarán los certificados de empadronamiento de todas las personas.

² EHUko Arte Ederren Fakultatean ikasle diren eta Bizkaitik kanpo erroldatuta dauden pertsonen kasuan. Kolektibo baten kasuan, pertsona guztien matrikula-agiriak aurkeztu behar dira.

² Para las personas empadronadas fuera de Bizkaia, alumnas de la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU. En caso de tratarse de un colectivo, se adjuntarán los certificados de matriculación de todas las personas.



--	--	--

DATU ESPEZIFIKOAK ¹ / DATOS ESPECÍFICOS ¹ (Dekretuaren 6. oinarria / Base 6 del decreto)			
ARTISTA IZENA / NOMBRE ARTÍSTICO		JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO (aaaa/mm/dd)	
ARTELANAK / OBRAS DE ARTE			
ARTELANAREN ZENBAKIA / OBRA NÚMERO		ARTELANAREN ZENBAKIA / OBRA NÚMERO	
Titulua <i>Título</i>		Titulua <i>Título</i>	
Teknika <i>Técnica</i>		Teknika <i>Técnica</i>	
Neurriak <i>Medidas</i>		Neurriak <i>Medidas</i>	
Balorazioa <i>Valoración</i>		Balorazioa <i>Valoración</i>	
Oharrak <i>Observaciones</i>		Oharrak <i>Observaciones</i>	

Kultur Ekintzako Zerbitzuarentzako alea / Ejemplar para el Servicio de Acción Cultural




--	--	--

DATU ESPEZIFIKOAK ¹ / DATOS ESPECÍFICOS ¹ (Dekretuaren 6. oinarria / Base 6 del decreto)			
ARTISTA IZENA / NOMBRE ARTÍSTICO		JAIOTEGUNA / FECHA DE NACIMIENTO (aaaa/mm/dd)	
ARTELANAK / OBRAS DE ARTE			
ARTELANAREN ZENBAKIA / OBRA NÚMERO		ARTELANAREN ZENBAKIA / OBRA NÚMERO	
Titulua <i>Título</i>		Titulua <i>Título</i>	
Teknika <i>Técnica</i>		Teknika <i>Técnica</i>	
Neurriak <i>Medidas</i>		Neurriak <i>Medidas</i>	
Balorazioa <i>Valoración</i>		Balorazioa <i>Valoración</i>	
Oharrak Observaciones		Oharrak Observaciones	

Interesdunarentzako alea / Ejemplar para la persona interesada



Banka Helbideraketaren fitxa / Ficha de domiciliación bancaria	IV. Inprimakia / Formulario IV	E5	
		Data / Fecha	
		Erregistro zk./ Nº de registro	

Hartzekodunak bete beharreko datuak / Datos a cumplimentar por la parte acreedora			
Izena eta abizen bi edo sozietatearen izena / Nombre y dos apellidos o Razón Social			
Helbidea / Domicilio			
Herria / Población		Probintzia / Provincia	
NAN - IFZ / DNI -NIF		Telefona / Teléfono	
e-mail		Faxa / Fax	
(tokia / lugar)		(urtea / año)	
n, 20		(e)ko	
		k	
Hartzekodun edo ahalduaren sinadura, / Firma de la parte acreedora o apoderada,			
Banka helbideratzek / Domiciliaciones bancarias			
1 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.			
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuyo titular es la arriba indicada.			
Helbideratu nahi duzun finantza erakundearen izena:			
Nombre de la entidad financiera en la que desea domiciliar:			
BIC		IBAN kodea / Código IBAN	
Herria / Población		Probintzia / Provincia	
(tokia / lugar)		(urtea / año)	
n, 20		(e)ko	
		k	
Sinadura eta banketxearen zigilua, / Firma y sello de la entidad bancaria,			
2 Jarraian aipatuko den kontua badagoela ziurtatzen dugu, eta titularra goian adierazitakoa dela.			
Certificamos la existencia de la cuenta a continuación referenciada, cuyo titular es la arriba indicada.			
Helbideratu nahi duzun finantza erakundearen izena:			
Nombre de la entidad financiera en la que desea domiciliar:			
BIC		IBAN kodea / Código IBAN	
Herria / Población		Probintzia / Provincia	
(tokia / lugar)		(urtea / año)	
n, 20		(e)ko	
		k	
Sinadura eta banketxearen zigilua, / Firma y sello de la entidad bancaria,			

Agiri hau alta edo aldarazpenik dagoenetan bakarrik erabiliko da. / Este documento se utilizará únicamente en los casos de alta o modificación.
 NANren edo IFKaren fotokopia erantsi behar da. / Debe adjuntarse fotocopia del DNI o en su caso del CIF.
 Bi kontu baino gehiago duen hartzekoduna izatekotan, erantsi beste inprimaki bat. / Caso de parte acreedora con más de dos cuentas, añadir otro impreso.

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea eta haiak garatzen dituzten gainerako arauak betetzeko, honako hau jakinarazten dizugu:

- Jasotako datuak Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailleko zuzendaritza eskudunaren ardurapeko fitxategi batean sartuko dira, trubutuen kudeaketan, ikuskapenean eta bilketan erabilitzeko.
- Zure datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, datuak ezerezteko edo datuen aurka egiteko eskubideak erabilitzeko, idazki bat bidali behar duzu Ogasun eta Finantza Sailaren jendaurreko bulegoetara (Basurtuko Kaputxinoen Bidea 2-4, 48013, Bilbo).

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de la Ley 2/2004 de 25 de febrero, de Ficheros de datos de carácter personal de titularidad pública y de creación de la AVPD (Agencia Vasca de protección de datos), y demás normativa de desarrollo, le informamos que:

- Los datos recabados van a ser incluidos en un Fichero de responsabilidad de la Dirección competente del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, para su utilización en la gestión, inspección y recaudación de los diferentes tributos.
- Podrá ejercer sus derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición mediante comunicación escrita a las oficinas de atención al público del Departamento de Hacienda y Finanzas (C/ Camino Capuchinos 2-4, 48013, Bilbao).

Administrazioerentzako alea / Ejemplar para la Administración